

sarrera

Hemen duzu "Gazteak eta administrazioa" izeneko unitate didaktikoa. Unitate didaktiko hau Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek argitaratu duten "Idatziak" liburuxkarekin batera lantzekoa da. Euskara normaltasunez erabiltzen laguntzeko beste pausotxo bat baino ez da hemen proposatzen duguna.

Aipatu duguna ez da, hala ere, helburu bakarra. Beste hainbat izan ditugu gogoan unitatea diseinatzerakoan, honako hauek besteak beste:

- ✓ Gazteak eta administrazioa elkarrengana hurbiltzea. Administrazioa zerbait iluna eta urruna dela pentsatzen dutenentzat, baliagarria izan daiteke lehenengo pausua emateko, eta hain urrun ez ikusteko. Era berean, eta herritar moduan, baditugu geure eskubideak, eta horietako batzuk dira hainbat gauza eskatzea, kexatzea..., beti ere, jakina, logikotasun baten barruan.
- ✓ Unitate honen azken helburua idatziak lantzea da, zalantzarik gabe. Ikasleek eskaera, kexa, erreklamazioa eta abar nola egin, nori zuzendu...ikasiko dute.
- ✓ Azken helburua idatzia izan arren, bidean ahozkotasuna ere landuko dute. Jakin badakigu, askotan eta askotan, hori zaila izaten dela, eta unitate honek horretan ere lagundu nahi du. Egoera errealak aurkezten dira eta egoera horiek izango dira, hain zuzen ere, ahozkotasuna eta idatzizkoa lotzeko zubi-lana egingo dutenak.
- ✓ Gaiei dagokienez, bestalde, gazteak kezkatzen dituen gaiak dira, euren interesekoak, hurbilekoak, gaur-gaurkoak: gaztelekuak eta gaztetxeak, kirolak, herrietako festak, isunak... Eguneroko bizitzan ere horrelako gaiei buruz hitz egiten dute, beharbada, gaztelaniaz. Unitate hau landuz, euskaraz hitz egiteko eta idazteko aukera emango zaie ikasleei.
- ✓ Kontuan izan unitate hau ez dela zurruna, itxia... Unitateko gaiak, testuak, ariketak eta abar norberak aukera ditzake, aldatu, egokitu, gelako kideen beharretara moldatu. Ikastunitatea dagoenetan erabiltzea ondo iruditu ezean, ez dago zertan ataza guztiak bata bestearen atzetik landu; esate baterako, aste batean lan daiteke ataza bat eta hurrengoan beste bat. Zenbait kasutan gaiak eurak ere izan daitezke arazo. Horrelakoetan komenigarria litzateke helburuak zeintzuk diren ondo zehaztea eta bai klaustroan, bai gurasoen aurrean azaltzea. Drogen kontuekin eta sexualitate kontuekin prebentzio lana egiten den moduan, gazteen artean beste gai batzuk ere jorra daitezke egoerak aztertzeko. Horrelakoetan gurasoen parte hartzea ere garrantzitsua da.

- ✓ Ezin ahaztuta utzi talde lanak daukan garrantzia. Garrantzitsua da begiratzen dugun aldetik begiratzen dugula. Esate baterako:
 1. Kontuan hartuta lankidetzaren oinarri-oinarrizkoa dela pertsonaren garapenerako. Lan honetan lan asko taldeka egin beharko dituzte: eztabaidak, erabakiak hartu, bozera-maleak aukeratu...
 2. Bada beste kontu bat hizkuntza eta talde lana zuzen-zuzenean lotzen dituena. Zer gertatzen da gure ikasleekin gela barruan euskaraz baina kanpoan gazteleraz hitz egiteko? Faktore asko izango dira horretan eragina dutenak, baina, nola hitz egingo dute ez badaude ohituta euren artean gauza ludikoez eta euren interesekoez euskaraz hitz egiten? Ahozkotatuta gela barruan ere landu beharra dago; aukera eman behar zaie euren artean kezkatzen dituzten gaien inguruan aritzeko, eta horretarako, zer hobeto talde lana baino?
- ✓ Gizarteak, gaur egun, pertsona sortzaileak eskatzen ditu, erabakiak hartzeko gai izango direnak, eta egoera batzuen aurrean nola jokatu jakiteko irizpide batzuen jabe direnak. Lan honek, zeharka bada ere, hori bultzatzeko aukera ematen duelakoan gaude.

Aurrera, bada, eta ekin lanari. Izan ere, jarritako helburuak ez dira gutxi eta ezta nolana hikoak ere, beraz, horiek lortuz gero, bai gure ikasleei eta baita gure euskarari ere mesede egingo diegu.

Arrasateko Udal Euskaltegia